

**EUSKARAREN KONTSEILUAK
EUSKALTZAINDIARI OMENALDIA**

OMENALDIA EUSKALTZAINDIARI

1998-XII-19, Gasteiz/Europa Jauregia

*Xabier Mendiguren,
Kontseiluko idazkari nagusia*

Euskaltzaindia, herri-agintariok, jaun-andreok:

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren eta euskalgintza guztiaren izenean ongi etorri eta eskerrik asko Euskaltzaindiari omenaldi honetan esku hartzera etorri zareten guztioi.

Seguraski arrazoi asko daude Euskaltzaindiari eskerrak eman eta ageriki omen egiteko, izan ere Euskaltzaindian euskararen zerbitzuan emandako urte luzeak eta egindako ekarpenak ugariak eta askotarikoak izan baitira. Horien guztien berri emateko Haritschelhar jaun euskaltzainburua arituko da laster, ohikoa duen kemen eta suharraz. Eta ez iraganekoez soilik, baita etorkizunean Euskaltzaindiak egin nahi dituen ez ere.

Nik neuk, Kontseiluak Euskaltzaindiari gaurko ekitaldi hau eskaintzeko ditugun bi arrazoi aipatu nahi ditut, besteak beste:

Batetik, orain 30 urte euskara batzeari ekin izana. Euskaltzaindia bere sorreratik bertatik arduratu izan duen auzia da euskalki desberdinetan banaturiko gure hizkuntza batzearena; hala ere, gerra eta ondorengo isilaldiaren ondoren 1968an ekin zion batze-prozesuari, irakaskuntzak eta belaunaldi berriak euskalgintzan sartzeak indar nabaria-rekin sentiarazi baitzuen premia hori. Luis Mitxelenaren eskutik Arantzazun egin zen biltzar hartan ezarri zen gaur ezagutzen dugun euskara batuaren etxagintzako giltzarria. Erabaki hura eta ondorengo urratsak ezinbestekoak izan dira gaurko euskararen eta euskalgintzako taldeen aurrerabiderako. Horregatik, gaur egun Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluan bilduta dauden 57 elkarteren izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari -iraganeko eta oraingoari- hemen ageriki, euskara batze horretan egin dituen ekarpen handiengatik. Hori gabe ezinezkoa izango zatekeen gaur egun irakaskuntzan lortu duen hedadura eta egungo gizartearen premietara egokitzea, hitz batean modernotu eta gaurkotzea. Euskal Herrian zehar egunero lanean aritzen garen milaka irakasle, idazle, itzultzaile, kazetari eta abarren lana erraztu eta hobetu duelako. Jakina da, Leizarraga, Axular, Etxeberri, Mendiburu, Mogel, Iturriaga, Añibarroengan -antzinakoenak baizik ez aipatzearren-, nabari zen euskara batuaren mira eta amets hura, gure mendea eta bereziki bigarren atalean burutu da eta gertakari hori funtsezkoa da euskararen biziraupenerako.

Bestetik, duela 20 urte, "Bai euskarari" goiburuean Euskaltzaindiak egin zuen kanpaina hura gidatu eta arrakastaz burutu zuelako ere ongi merezia du omenaldi hau.

Diktaduraren gau luze eta iluna bukatu eta aro politiko berri baten atarian Euskaltzaindiak eta orduko euskalgintza xumeko indarrek begirada argikuslearekin ekin zioten Euskal Herriko gizarte zanpatua inarrosiko zuen deiar dar zolia egiteari. Euskaltzaindiak eta laguntzaile-andana beharginak urtez urte indartuz eta handituz joango zen prozesua abian jartzea lortu zuten. Horregatik gaur hemen Euskaltzaindiarekin batera, kanpaina arrakastatsu haren euskarri eta eragile izan zirenak ere aipatu eta omendu nahi dira. Bejondeizuela guztioi!

20 urte geroago nabarmen hazi, ugaldtu eta aberastu den euskalgintzako baratzta gehientsuena bere baitan biltzea lortu duelarik, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak "Bai Euskarari" kanpaina haren lekukoa hartu eta "XXI. mendeko akordioa" goiburua aurretik ezarriz beste kanpaina eragile eta indartsu bat antolatzea lortu du.

* * *

Gaurko kanpaina honek asko zor dio orduko hari. Egia da, ordutik hona, euskarak urrats handiak egin dituela hezkuntzan, kulturaren, Unibertsitatean eta komunikabideetan, oro har, eta seguraski orduko kanpainagileek amestu ere ez zutela egiten gaur egungo egoera. Zentzu horretan baikor egon eta etorkizunari ilusioz begiratzeko eran gaude, baina orduan bezala gaur ere etorkizuna ez daukagu ziurtaturik Euskal Herriko lurralde batzuetan, eta orokorrean ere nekez aurre egin diezaiekegu etorkizuneko erronkei, baldin eta gizarte-sektore guztietara, lanarenera bereziki, euskararen erabilpena hedatzen ahalegindu ezean.

Orduan bezala gaur ere "Bai Euskarari" esaten jarraitu beharrean gaude, baina oraingoan gizarte-eragileei dei berezi bat eginez gero eta ugariago diren haur eta gazte euskaldunentzat etorkizuneko gizartearen sektore, erakunde, elkarte eta enpreetan, Euskal Herri osoan zehar, abegizko egitura euskaldunduak lehenbailehen prestatzeko eskatuz. Hori gabe lehen urteetan egiten diren inbertsioak oso murrizturik gelditzen baitira lanaren munduan sartzeko orduan batik bat. Hori lortu ahal izateko eskatzen ditu Kontseiluak eta euskalgintzak gizarte-osoaren akordioa eta konpromisoa, zeinek bere egoera eta borondateak urratsak etengabe egin ditzan, euskaldun izatea etorkizuneko gero eta erosoagoa gerta dadin.

Beraz, nola euskara batzea hala euskara azkartu eta bultzatzea, duela 30 eta 20 urte jazotako gertakari haiek inoiz behar adina Euskaltzaindiari eskertuko ez dizkiogun egintzak izan dira, eta gaur egun baino askozaz baliabide gutxiago eskuan zituen garaietan.

Puntu honetara iritsirik, esan beharra daukat, Euskaltzaindiaren iraganeko ekarpenak aitortu eta omentzea ongi egonik ere -eta helburu horrek bildu gaitu gaur hemen- Euskaltzaindiak une honetan eskuartean dituen eta etorkizuneko izango dituen egitekoen garrantzia ere aipatu nahiko nukeela. Jakina da Euskaltzaindiak garai desberdinak ezaugu dituela politika, gizarte-bizitza eta euskalgintzari berari dagokienez eta aldian-aldian egokituz joan dela herri-agintarietara eta gizarteak eman dizkieten baliabideak erabiliz bere helburuak betetzeko. Bestalde, baliabideak aipatzean era askotakoak izan daitezkeela gogoraz nahi dut, ez ekonomiko soilak, nahiz eta sarritan eta neurri handi batean lotura estua izaten duten diruzko laguntzarekin.

* * *

Nik neuk Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren idazkari naizen aldetik

gure baitan dauden 57 elkarteen aldeketasun, atxikimendu eta oinegitura bere lanerako baliagarri izan daitekeen heinean eskaintzen diot. Eta bide batez gure euskal gizarteak gero eta lastertasun handiagoarekin eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna eta bitartekoak izatea opa diot.

Uste dut gaur egun eta etorkizunean euskalgintzaren aldeketasuna beti izango duela aitortzea baliozko gertatuko zaiola. Gainera, hasieratik beretik Euskal Herri osoan eta osoarentzat lan egin duen erakundea izanik, maila guztietako herri-agintaritzen laguntza beti izango duela zinez uste dut, etorkizunari begira dituen erronkei erantzuteko, eta zer esanik ez, gero eta indartsuagoa den euskalgintzako milaka eta milaka profesionalen atxikimendu eta prestutasuna bere gidaritza onartzeko.

Haziz doan euskararen mundu honetan Unibertsitatearekiko lankidetzaren ezinbesteko eta ondorio biderkatzaile handiko ari da gertatzen euskararentzat, eta bertan alor desberdinetan lanean ari diren aditu euskaltzaleekiko harremana garrantzi handikoa gertatuko da euskararen etorkizunerako. Ziur nago Euskaltzaindiak jakingo duela guztiekiko zubiak egoki ezartzen, eta dagoeneko badituenak sendotzen orain arte bezain fruitu egokiak ematen jarraitzeko, azken batean horixe baita gizartearekiko lokarriak estutuz etorkizuneko erronkei irtenbideak bilatzeko biderik egokiena. Baina badira Euskaltzaindiari eska ezin lekizkiokeen lanak ere, eta horiek hizkuntzari dagokionez adin-nagusitasunari iritsitzat jotzen ditugun euskaldun guztiek eta bakoitzak hartu beharko ditugu geure gain, banaka zein taldeetan elkarturik. Azken aldi honetan sortzen ari den giro politiko berrian -ez da topikoa Euskal Herriarentzat aro berri baten atarian gaudela esatea-, ziur nago, euskarak inoiz baino indar, borondate eta adostasun gehiago bildu ahal izango duela bere inguruan eta horixe izango dugula guztiok XXI. mendean euskarak garapen osoa lortuko duen bermerik sendoena herri-eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzaren leial eta zintzoan.

EUSKARAREN GIZARTE KONTSEILUAK EUSKALTZAINDIARI OMENALDIA

Vitoria/Gasteiz, 1998-XII-18

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Euskararen Gizarte Kontseiluko jaun-andereak,
Agintari jaun-andereak,
Euskaltzainkideak.
Jaun-andereak, agur.

Pozik hartzen dut hitza areto nagusi honetan eta, berehala, eskertzen zaitut Xabier Mendiguren jauna, orain bertan zure ganik entzun dudan mintzaldiaren gatik. Euskararen Gizarte Kontseiluak omenaldi bat eskaintzen dio gaur Euskaltzaindiari. Etorria da, beraz, omentzeko garaia eta uste dut Euskaltzaindia ohoratua dela omenaldi honekin.

Errana dut jadanik bertze biltzar batean zortzi zenbakiarekin bukatzen delarik urtea zorionsua dela Euskaltzaindiarentzat. Adibidez, 1918: Euskaltzaindiaren sortzea, 1968: urre-ezteietako egin zen Arantzazuko biltzar famatua; 1978: Bergarako biltzarra eta *Bai Euskarari* ezin ahanzizko kanpaina; 1998: hogeitun urteren buruan, lema berarekin Euskaltzaindiari egiten zaion omenaldia.

Hogeitun urte iragan dira. *Bai Euskarari* kanpainaren eragileei —batzu zenduak, bertze batzu hemen gurekin direnak— oroitaraziko diet Aita Villasantek, orduko euskaltzainburuak idatzi zuena orduan:

“Bittor Artola, Iñaki Azpitarte, Pedro María Basañez, José María Beaskoetxea, Jon Castañares, Juan María Covian, Alberto Elorriaga, Enrique Ibabe, Iñaki Juaristi eta J. J. Zearreta.

Jaunak,

Guztiok dakigu nolako eragina, nolako zizarra eta oihartzuna izan zuen Bai Euskarari kanpainak.

Kanpaina horren eratzailak bada, une hontan hementxe ditugu geure artean, geurekin. Gizon prestu hoiek gabe ez genuen ezer egin ahal izango. Jaun hoi buru-bihotzetan erne zen kanpaina hori egiteko lehen asmoa Beroiek antolatuta zuten, beroiek etengabe egon dira gainean, eta beroiei esker bere helburuak lortu ditu kanpaina horrek. Beroien laguntza, oso-osoko ardura eta emaitza gabe Euskaltzaindiak ezer gutxi egin zezakeen. Arlo hoietan trebe direnen eskua behar-beharrezkoa genuen, eta jaun hoiek eskua ezezki baita bihotza eta astia eta dena eman digute.

Kanpaina bukatu da, baina Euskaltzaindiak ezin ahantz ditzake jaun hauek.

Eskerrak ematen dizkiegula esateak badu halako hitz hutsal eta hotz baten itxura. Ordaindu, berriz, guk ezin ordain diezaiekegu, inondik eta inolaz ere, euskaratik eta Euskaltzaindiatik jaun hoiak egin duten lana.”

Hogeitaz urteren buruan ez du Euskaltzaindiak ezer ahantzi, hor dauka gogoan jaun hoiak egin zuten lan baliosa euskararen eta Euskaltzaindiaren onerako. Hortakotz errepikatzen ditut, gaur, Aita Villasantek erran zituenak 1978-ko irailaren 29-an.

Norbait omendua bada, zerbait egin duelako da; pentsa dezagun zer egin duen Euskaltzaindiak, azken hogeita hamar urteotan, 1968-tik orain arte. Koldo Mitxelena zenak erakutsi zuen bidetik ibili da Euskaltzaindia. Hamar urtez batu du ortografia “h” famatu hura barne, deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzailea, ikusirik euskaldun gehienek onartzen zizutela Euskaltzaindiaren proposamenak, erabakiak hartu zituen 1978an Bergarako biltzarrean. Geroztik ez da lo egon Gramatika batzordea, batu dituelarik hikako formak eta joskera aztertzen hasi. Hor daude lekuko agertu diren lau liburukiak.

Hiztegi batzordea ez da alferrik egon.

Berrikitan agertu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hamaikagarren liburukia. Denbora berean Euskaltzaindiak hiztegi batuko formak aztertzen ditu hilabetero, hogeitaz mila hizt eskainiko dituela 2000. urterako.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa Dialektologia batzordearen eskuetan dago. Lan ikaragarria, 2.800 galdera egin direlarik Euskal Herriko 145 herritan. Datorren urtean agertuko da Atlasaren lehen liburukia 300 mapekin. Aspaldiko ametsaren gauzatzen ari da Euskaltzaindia.

Onomastika batzordearen lanetan ikus daitezke herri-izenak, pertsona-izendegia, euskal deituren-izendegia, herriei eta jendeei eginikako erantzunak milaka. Exonomastika aztertuz (atzerrietako hiri, mendi, ibaien izenak) euskara batuari mesede handiak egiten dizkio.

Literatura batzordeak antolatzen ditu Jardunaldiak gai batzu hautatuz hala nola ipuinak, antzertia, paremiologia edo euskal literaturak dauzkan idazleak aztertuz: Elizanburu, Lizardi, Oihenart eta iaz Eusko Ikaskuntzarekin apailatu du biltzar nagusi bat Hendaiaren eta Saran Anton Abbadari eskainia haren heriotzaren mendeurrenakari.

Jadanik aipatu ditut argitalpen batzu (hiztegia, gramatika, Atlas), baina ez nituzke ahantzi nahi Onomastikakoak (16 liburuki), Euskararen lekukoak deritzanak (19) eta Iker sailekoak (11). Gehitzen baldin baditugu *Eusker*a aldizkaria eta Arauak, neurt daiteke zer izan den Euskaltzaindiak Euskal Herriari egin dion emaitza: orrialdeak milaka, hamar milaka ere, dudarik gabe.

Jagon Sailak ere badu berea, bete du bere eginbidea urte latz haietan, hartuz bere gain bertsoalaritza, alfabetatze kanpainak eta abar. Gerorago utzi ditu bertzeren eskuetan bakoitzak behar baitu berea egin. Halere pentsatzen dut bi gogoeta egin behar dituela Jagon Sailak geroari buruz: alde batetik, euskara egoki bat bultzatu eta agertu komunikabideen aurrean eta irakaskuntzan bereziki eta, bertzetik, euskararen estatusa zaindu, ez baita berdina Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean.

Erran nezake ere Euskaltzaindia Euskal Herriaren, Euskal Herri osoaren zerbitzuko dela hiri nagusietan dauzkan ordezkartzei esker, bere egoitzan dituen biblioteka eta zerbitzu guzietan esker. Egia da zerbitzu publiko izanez diru publikotik bizi dela eta beharrezkoak dituela baliabide guztiak izan dituen dirubaliabideak edo gizabaliabideak. Parada honetaz baliatzen naiz gure agintariei eskerren bihurtzeko orain arte emaiten dizkiguten ahalen gatik pentsatuz ere gure beharrak gero eta handiagoak direla nahi balinbadugu, tresnerian adibidez, III. milenioan sartu burua gora.

Euskaltzaindiari egiten zaion omenaldi honetan nola ez aipa Koldo Mitxelena erran zuena Bergarako biltzarrean, duela orain hogeitun urte:

“Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua.”

Euskaltzaindiaren izenean zer erran dezake orain Euskaltzainburuak, ikusiz azken hogeita hamar urtetan egin den lana, euskarak ukan duen bultzada, euskara batuak ukan duen haurtzaroa XXI. mendean gerturik izaiteko eta betetzeko Euskal Herri osoko eremu guzira hizkuntza ofizial gisa? Bai, errepika nezake senditzen dudala poza eta damu izpirik ez.

Segitzen zuen Mitxelena erranez:

“Erabakirik onena hartu zuen (Euskaltzaindiak) Euskal Herriari euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea.”

Hogei urteren buruan erran nezake ez dela gerotik gerora ibili Euskaltzaindia, ez dela luzamendutan sartu, aldiz gogotik eta deliberatuki abiatu dela euskara batuaren bide luze horretan. Aipatu ditut egin diren lanak eta ez dizkit nehork ukatuko azken mende laurden honetan agertu diren etekinak.

Euskararen bultzada eta aurrerapena zor diogu oraiko euskaltzainen belaunaldiari, ez bakarrik euskaltzainei baina ere Euskaltzaindiaren batzordeetan sartuak direnei, izan dituen euskaltzain urgazle edo Unibertsitateko ikerle edo irakasle, Euskaltzaindiak biltzen baititu Euskal Herriko unibertsitate guztiak Hegoaldekoak nola Iparraldekoak. Horretan datza Euskaltzaindiaren idekidura eta indarra. Duela hogei urte sortu zuen *Bai Euskarari* leinari jarraikiz Euskaltzaindiak beteko ditu bere xedeak eta helburuak agintarien eta euskaltzale guztien laguntzarekin. Atzo bezala, orain eta bihar ere, *Ekin eta jarrai* duela gogoan aldarrikatuko du *Bai Euskarari*.